

2005eko Azaroaren 20a. KRONIKA

Mikel Albeniz donostiarra garaile partaidetza errekorra hautsi zen proban
-Barren astekaria. 2005-XI-20

Inoiz baino antxintxikari gehiago, 31 lagun, bildu ziren Plaza Handian Karakaterako igoera gogorrari aurre egiteko. Hauetatik 14 elgoibartarrak eta gainontzekoak Euskadiko hiru probintzietatik etorriak. Rodisan lan egiten duen Mikel Albeniz donostiarra izan zen Karakatera igotzen bizkorrena. Trintxerpe klubeko korrikalariak 31 minutu eta 5 segundu erabili zituen 700 metroko desnibela gainditzeko. Lankideen animuei kasu eginez, eta astebete lehenago Behobia-Donostian egin zuen 1:10:08 denborak ematen zion konfidantza eta sasoi puntuak bultzatuta parte hartu zuen.

Lehen elgoibartarra, Jose Mari Fernandez, probako dominatzaile nagusia izan zen beste behin. Azken urteetako denboretan mantendu zen "Suso", 32 minutuko denborarekin. Lasaitu ederra hartu zuen 96an ezarri zuen errekorrak bere horretan jarraituko zuela egiaztatzean. Partaidetza errekorra ez ezik (aurrekoa 20 lagunetan zegoen), Karakaten eta Plaza Handian bildu ziren ikusle kopurua aipagarria izan zen. Aste euritsuaren ostean egun fresko baina eguzkitsua atera zen, eta ikusle asko animatu zen Karakatera oinez igotzera.

SAILKAPENA

1	Mikel Albeniz	31'05"
2	Joxe Felipe Larrazabal	31'29"
3	Jose Mari Fernandez "Suso"	32'00"
4	Jesus Mari Romon	32'51"
5	Iñigo Ortuoste	32'55"
6	Igor Rey	33'51"
7	Jose Cruz Montes	34'52"
8	Ignacio Diaz	33'57"
9	Jon Revert	34'01"
10	Ibon Gonzalez	34'26"
11	Martin Dominguez	35'26"
12	Sabin Zenarruzabeitia	35'35"
13	Manolo Ramos	35'44"
14	Koldo Azkorbeitita	36'01"
15	Asier Orbea	36'11"
16	Asier Arrieta	